



Kaixo, familia:

Altxa Burua Gipuzkoa sarea osatzen ari da. Teknologiaren erabilera egokia bultzatu nahi duten guraso taldeak herri, eskola eta auzoetan elkartzen ari dira.

Batik bat hiru helburu ditu Altxa Burua plataformak:

- Gure seme-alabei Interneteko sarrera duten gailuak ematea atzeratzea.
- Eskolak telefono mugikorrik gabeko arnagune bihurtzea.
- Helduak eta seme-alabak erabilera egokian trebatzea, familiako erabileran eredu izan eta kontzientzia saretzea.

Ormaiztegin ere gai honekin kezkatuta dagoen guraso talde bat bildu gara eta gure seme-alabek hezkuntza digital eta tresna egokiak izan ditzaten lan egiteko prest gaude.

**Zu ere interesatuta bazaude, jar zaitez gurekin harremanetan:
altxaburuaormaitzegi@gmail.com.**

Gure seme-alabek eskertuko digute,

